



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena

2017ko azaroaren 10ean, 12:00ak direnean, Ohizkanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HERRIKO OSTATUA.

Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko leihaketaren deia egin zen, hasierako prezio honekin: hilabeteko 100 euroko errenta (gehi BEZa).

Aurkeztu zen eskaintza bakarra ireki eta aztertu zuen kontratazio-mahaiak eta ekintza haren akta irakurri du idazkariak.

3. kartazala ireki du idazkariak eta hau izan da emaitza: E.J.A.k 100 euroko errenta eskaini du hileko.

Aipatutakoa kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendu kontratua esleitzea E.J.A.ri – NAN 72.670.226 R—, 100 eurotan hileko (gehi BEZa), 5 urterako, beste 5 urte arte luza daiteken epean. Baldintza pleguko 8. eta 9. baldintzak bete beharko ditu adjudikatariak (behin betiko fidantza ezarri eta kontratua gauzatu, behar diren agiriak aurkeztu ostean), erabaki honen jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Erabakia jakinaraztea adjudikatariari.

Eta bertzerik ezean, 12:10 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.